

Amasa-Villabonan, 2025eko otsailaren 7an.

## PRENTSA OHARRA

### *Zubimusu Ikastolaren 2023/24 Ikasturteko Itunaren Moldaketari buruzko Argibideak*

*Hezkuntza Sailak, urtarrilaren 13an EHAA aldizkarian argitaratutako aginduaren arabera, Zubimusu Ikastolaren 2023/24 ikasturteko Lehen Hezkuntzako itunean moldaketa bat egin da.*

Zubimusu Ikastolak nabarmendu nahi du 2023/24 ikasturteari dagokion itunean **ez dagoela** inolako **irregulartasun edo isunik**. Zubimusu Ikastolak antolaketa pedagogikoaren baitan hartutako erabaki batek ez du onarpenik izan Hezkuntza Sailetik, eta horrek 2023/2024ko **itunaren moldaketa** ekarri du.

Itunaren moldaketaren ondorioz, Zubimusu Ikastolak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari diru itzulketara egiteko betebeharra du. Ikastolak, Sailaren erabakia onartu eta, horren ondorioz, beharrezkoak diren urrats guztiak egingo ditu betebehari hori betetzeko.

Hala ere, azpimarratu nahiko genuke ez dela ikasturte horretako itunaren galera bat izan, moldaketa bat baizik, eta gaur egun itunak indarrean jarraitzen duela hasieran ezarritako irizpideen arabera.

Halaber, garrantzitsua da adieraztea **moldaketa honek ez duela zerikusirik** Hezkuntza Sailak, **matrikulaziorako irizpideetan eskola segregazioa apaltzeko eta ikasleak era orekatuagoan banatzeko hartutako neurriekin**. Zubimusu Ikastolak, hezkuntza inklusiboaren alde eta hartutako neurri horien inguruan bere konpromisoa berretsi nahi du.



Bukatzeko, azken aldian **eragile desberdinetatik jasaten ari garen erasoak salatu nahi dugu**. Ez dugu inolako akusazio faltsurik onartuko eta gure lana zalantzan jartzen duen aurreiritzi edo desinformazioaren kontra irmo mantenduko gara.

Gure komunitateari eta euskal hezkuntzari egiten diogun ekarpena sendotzen jarraituko dugu, gure balioen alde lan egiten, Euskal Herriko beste 113 ikastolekin batera, elkarrekin indartsuagoak bihurtzen garelako.

Eskertzen dugu familiek, ikasleek eta komunitateak egunero ematen diguten babesa, eta horri esker, etorkizuneko erronkei aurre egiteko konpromiso sendoarekin jarraituko dugu.

**Zubimusu Ikastola**